



TRIPONTZIA

BAIETZ 3000 BOLETO SALDU!

TRIPONTZIA GURE ESKU herri ekimena-ren zozketa bat da. Gure esku erabakitze-ko eskubidearen aldeko mugimendu herritarra da. Euskal Herriko lurraldeetan etorkizun politikoa erreferendum bidez erabakitzea helburu duena, normaltasunez, libre eta demokratikoki.

Gure Esku eragile autonomo eta autofinanziatua da eta bere finantziazio-bide nagusia TRIPONTZIAren bidez lortutakoa da.

Aurten Ikastolako hezkuntza komunitateari parte hartzeko deia egin digute. Modu horretan, Gure Eskuri babes adierazi eta laguntza euskal kulturgintzako ekosistema artikulatuko duen proiektu batera bideratzeaz gain, Ikastola ere ekonomikoki lagunduko genuke, hori da, besteak beste, Bazkideen Batzar Orokor ezberdinetan jorrotutakoa; Ikastolarentzat baliabideak edo diru-iturriak topatzea. Hori dela-eta, familia eta langile guztioi Tripontzia ekimenean parte hartzeko ahalegina egitea eskatzen dizuegu Artezkaritza Batzordetik.

Ekimen honetan txartel batzuk jarriko dira herritarren esku. Herritarrek 1,5 euroko ekarpena egingo diote Laudio Ikastolari, 5 euroko **TRIPONTZIA** txartel bakoitzeko.

Zenbaki bakoitzak 8 zenbaki edo boleto ditu (40 euro, serie 1): Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa, Nafarroa Behera, Zuberoa eta Diaspora.

Parte hartu nahi duenak, boleto bat, bi, serie erdia (lau), serie osoa (8) edo nahi beste erosi ahal izango ditu, gero saltzeko saiakera ere egin daitekeela kontuan hartu! Baietz 3000 boleto saldu!

Ekimen honetan parte hartu nahi duenak abenduaren 10a baino lehenago egin beharko du eskaera eta boletoak abenduaren 22ra arte jaso ahal izango ditu idazkaritzan.

Tripontziaren kobrantza abenduko errezi-boan azalduko da.

Tripontzia familiakoa ez den guraso edo kide batek jasotzeko baimen idatzia beharko da.

52.000 EUROKO SARIA

Zozketa 2024ko urtarrilaren 22an izango da.

1.saria_ 30.000 euro zenbaki eta serie irabazlearentzat

2.saria_ 2.000 euro x 7 zenbaki bereko gainerako zazpi serie bakoitzarentzat

3.saria_ 1.000 euro x 8 bigarren zenbaki saridunaren zortzi seri irabazleentako bakoitzarentzat.

eskaera egin





Motxotekale, 16
01400 Laudio
Tel. 94 672 67 37
audio@ikastola.eus
www.audioikastola.eus

FAMILIA:

TRIPONTZIA TXARTELAK HARTZEKO BAIMENA

Baimena ematen diot _____ri
gure izenean Laudio Ikastolan TRIPONTZIA txartelak jasotzeko.

_____k izenpetuta